

# LEHEN SOROSPENAK

---

## GURASOENTZAKO GIDALIBURUA

E. Arroabarren Aleman • U. Hernandez Dorronsoro • M. Imaz Murgiondo • N. Martin Calvo • E. Rezola Arcelus

Donostia Ospitaleko Pediatria Zerbitzuko mediku egoiliarrak



Donostia Ospitalean euskararen erabilera  
sustatzeko Joanes Etxeberri Elkarte  
2008





## AURKEZPENA

Lehen sorospenei buruzko gidaliburu honen helburu nagusia da gurasoei ume gaixoaren edo istripua izan duenaren ondoeza edo mina arintzeko informazio baliagarria eskaintzea, medikua ordezteko asmorik izan gabe. Hori horrela, medikuarengana joan bitartean, haurrak dituzten guraso guztiek egoera arrunt, urgente eta/edo larrien aurrean baliagarriak diren prozedurak burutzen ikas dezaten lortu nahi dugu.

Gidaliburu honek guk nahi dugun erantzuna izango balu, umeen osasuna sustatzeaz gain, pediatriako larrialdiez arduratzen garen guztiontzat onuragarria izango litzateke, haurrak eritasun arinagoekin etorriko liratekeelako, eta horrek gure lana erraztuko lukeelako.

Beraz, eta laburbilduz, gida hau pediatriaren osasun-sustapenerako garrantzi handikoa izan daitekeela uste dugu, haurraren osasuna bultzatzen duelako, gurasoak baliagarriak sentiarazten dituelako eta haur gaixoekin lan egiten duten guztiontzat lagungarria izan daitekeelako.

### Donostia Ospitaleko II. Joanes Etxeberri sarian finalista



Eusko Jaurlaritzak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundutakoa

Joanes Etxeberri Elkarteak argitaratua  
Donostia Ospitaleko Komunikazio Unitateak egina  
Irudiak: Imanol Guridi

Lege-gordailua: SS-127-2009

## AURKIBIDEA

- 4 Sukarra
- 5 Belarriko mina
- 6 Gorakoak
- 7 Sukarrak eragindako konbultsioak
- 8 Gorputz arrotzak arnasbideetan
- 12 Otorragia/Odoljarioa belarrian
- 13 Epistaxia/Odoljarioa sudurrean
- 14 Hortz-abultsioa/Hortza erortzea
- 15 Zauriak
- 16 Odoljarioak
- 17 Anputazioak eta mozketak
- 18 Erredurak
- 19 Intoxikazioak
- 22 Eztenkadak eta hozkadak
- 24 Beroak eta hotzak eragindako arazoak
- 26 Egin behar **EZ** dena
- 28 Oinarrizko botikina



Sukarra gorputzaren tenperatura normalaren  
igoera da:  
> 38 °C ondestean  
> 37,5 °C besapean  
Birusek eragindako infekzioak sukarraren  
sortzaile nagusiak dira.

# SUKARRA

## ZER EGIN

- Umea arropa gutxiarekin mantendu.
- Likido ugari eskaini, behartu gabe.
- Giro-tenperatura egokia mantendu.
- Sukarra haurraren eragina duenean bakarrik tratatu behar da.
- Medikatuak agindutako antitermikoak bakarrik erabili, eta agindutako dosietan.
- Ez da komeni antitermikoak txandakatzea, albo-ondorioak eta dosi-akatsak gertatzeko arriskua handitzen baita.

## NOIZ ERAMAN HAURRA LARRIALDI-ZERBITZURA

- 3 hilabete baino gutxiago dituenean.
- Haurra loguraz edo kexati dagoenean.
- Arnas zailtasuna nabaritzean, buruko min handia duenean edo botaka dabilenean.
- Lehen konbultsioa izatean.
- Azalean presioarekin desagertzen ez diren orban gorriak azaltzen bazaizkio.



Erdiko belarriko infekzioa goiko arnasbideetako infekzioen konplikazio arruntena da, batez ere bizitzaren lehen urteetan.

Otitisa analgesikoekin bakarrik sendatzen da gehienetan 48-72 ordutan, antibiotikorik behar izan gabe.

Sintomak: belarriko mina, sukarra, anorexia, gorakoak, beherakoa, belarritik likidoa ateratzea.

# BELARRIKO MINA

## ZER EGIN

- Belarriko mina kentzeko ibuprofenoa edo parasetamola erabili, medikuak agindutako dosietan.
- Ez bota ezer belarri barnean. Likidoa atera bada, ez busti belarria.
- Garbitu sudur-bideak serum fisiologikoarekin erdiko belarriaren aireazioa hobetzeko.
- Umeak ez du jateko gogorik izango, ez behartu.
- Haurrak 48 ordutara sukarra edo belarriko minarekin jarraitzen badu, pediatriak berriz baloratu beharko du.

## NOIZ ERAMAN HAURRA LARRIALDI-ZERBITZURA

- Haurra makalago, loguraz edo kexati badago.
- Buruko min handia badu edo botaka badabil.
- Belarri atzean gorritasuna, mina eta belarria aurrerantz bultzatzen duen hantura agertzen bada.



Urdail barruan dagoen edukia kanporatzea. Batzuetan, lepotik gora, gorakoen indarrak sortuta, orban gorri txiki batzuk ager daitezke. Bakarrik desagertzen dira.

# GORAKOAK

## ZER EGIN

- Goserik ez badu, hoberena tarteka likidoak eskaintzea da.
- Goraka egin ondoren, 15-20 minutu pasa eta gero, pixkanaka likidoak eskainiko dizkiogu (10 ml, 10-15 minututik behin). Beherakoa ere baldin badauka, ahozko hidratazioa da egokiena.

## NOIZ ERAMAN HAURRA LARRIALDI-ZERBITZURA

- Haurra 3 edo 4 hilabete baino gazteagoa denean edo sukar altua duenean ( $> 38\text{ }^{\circ}\text{C}$ ).
- Deshidratazio-sintomak nabaritzen badira.
- Portaera arraroa sumatzen bada, sukar altua ( $40\text{ }^{\circ}\text{C}$ ), buruko edo lepoko min handia, gorputzean orbanak, sabeleko mina edo intoxikazio susmoa izanez gero.
- Beherako edo gorakoetan odol nahasia ikusiz gero.

## DESHIDRATAZIO-SINTOMAK

- Egarri bortitza.
- Likido tolerantzia gutxitua.
- Begi barneratuak.
- Ahoko mukosa lehorra.
- Azal lehorra, gernu edo malko produkzio gutxitua.



# SUKARRAK ERAGINDAKO KONBULTSIOAK

Ume osasuntsuetan sukarrak garunean eragiten duen erantzuna. Gehienetan sukarraren lehen sintoma da, eta eperik arriskutsuena 6 hilabetetik 5 urtera bitartekoa da.

## SINTOMAK

- Konorte-galera.
- Gorputza oso biguna edo zurrun-zurruna geratzen zaio.
- Dardarka hasten da.
- Ahoa indarrez itxita egoten da.
- Begirada galdua.

Iraupena orokorrean 5 minutu baino gutxiago izaten da eta, ondoren, umea lo geratzen da.

## ZER EGIN

- Jarri umea etzanda arnasa hobeto hartzeko.
- Inguruan dauden gauzak urrundu mina har ez dezan.
- Ez sartu ezer ahotik.
- **Parazetamola duen supositorioa** jarri sukarra jaisteko.
- Medikua eraman diagnostikoa egiaztatzeko.

## GOGORATU

- Sukarrak eragindako konbultsioek pronostiko oso ona dute.
- Konbultsioaren ostean, umeak lehen zeukan osasun-egoera berdina mantenduko du.
- Sukarra eragiten duen edozein infekzio arruntek eragin dezake konbultsioa.
- Konbultsio hauek nahiko ohikoak dira (% 3-5), eta hiru umetatik batek beste konbultsio bat edukiko du.
- Gehienetan ez da proba berezirik behar diagnostikoa egiaztatzeko.

# GORPUTZ ARROTZAK ARNASBIDEETAN/ ITOLARRIAK

## 1 AIRE-BIDEAREN BUXADURA EZ OSOA

### SINTOMAK

- Haurra eztula egiten hasiko da eta arnas zailtasuna nabarituko zaio.

### ZER EGIN

- Haurra lasaitzen saiatu eta eztula egin dezan animatu gorputz arrotza kanporatu arte.
- Ahal denean, laguntza eskatu (batez ere bularreko haurrekin).
- Haurra eztulka ari den bitartean, edo bere kabuz arnasa hartzen duen bitartean, (arnasestuka edo negarrez baldin badago ere bai), ez zaio beste maniobrarik egin behar.





Arnasbideen buxadura eragiten dute eta arazoa konpontzen ez bada, bihotz-arnaseko geldialdia gertatzen da. Helduetan gorputz arrotz ohikoena haragi zatia izaten den arren, haurretan, fruitu lehorrak, gozokiak eta jostailu zatiak izaten dira. Istripu hauek ekiditeko aurrezaintza da neurririk inportanteena (ondo murtxikatu, haur txikiei fruitu lehorrik ez eman, haurren jostailuak arretaz zaindu...).

## 2 AIRE-BIDEAREN BUXADURA OSOA

### SINTOMAK

- Momentu honetan haurrak eztula, negar edo hitz egiteari utziko dio eta eskuak lepora eramango ditu. Horrek esan nahi du arnasketa eten egiten dela arnasbidea buxatu egin delako.

### ZER EGIN

- Helduak eta > 1 urteko haurrak. Heimlich maniobra:
  - Kaltetuaren atzean kokatu eta besoekin inguratuz ukabila sabelaren erdialdean jarri (erpurua barnealderantz). Beste eskua ukabilaren gainean jarri, eta egin indarra barnerantz eta gorantz mugimendu azkar baten bidez.
  - Errepikatu maniobra hau gorputz arrotza kanporatu arte edo kaltetuak konortea galdu arte.
  - Ume gizenetan eta haurdun dauden emakumeetan konpresioak bularrean egin behar dira.
- Bularreko haurrak:
  - Haurra buruz behera ipini besaurrearen gainean, burua gorputza baino beherago jarri eta hatzekin ahoa zabalik mantenduz. Beste eskuarekin 5 kolpe eman haurrari sorbalden artean.
  - Ondoren, buruz gora jarri, eta beste 5 konpresio egin behar dira bularrezurraren gainean bi hatz erabilita.
  - Maniobra hau gorputz arrotza kanporatu arte edo konortea galdu arte errepikatu behar da.

### 3 AIRE-BIDEAREN BUXADURA OSOA ETA KONORTEA GALTZEA

#### ZER EGIN

- Helduak eta > 1 urteko haurrak:
  - Laguntza eskatu edo 112ra deitu.
  - Hatza kakotuz, saiatu ahoko gorputz arrotza ateratzen (eragiketa hau arreta handiz egingo dugu gorputz arrotza barrurantz bultzatzeko arriskua baitago).
  - Arnasa hartu gabe jarraitzen badu, Heimlich maniobra berezia egin beharko da:  
Kaltetua buruz gora etzanda dagoela izterren gainean eseri kaltetuaren bururantz begira. Eskuak bata bestearen gainean jarri kaltetuaren zilborraren eta bularrezurraren artean, eta 5 konpresio egin bizkarrerantz eta bururantz. Ondoren, arnasketa konprobatu, eta oraindik ez badu arnasik hartzen, maniobra errepikatu.
- Bularreko haurretan:
  - Konortea galtzen badu, laguntza eskatu, eta aho barnea begiratu. Ondoren, konortea galdu baino lehen burutzen ari ginen maniobrarekin jarraituko dugu.



# GORPUTZ ARROTZAK

## 1 BELARRIETAN

- Ez saiatu gorputz arrotza orratz edo antzeko objektu batekin ateratzen, tinpanoa zulatu baitaiteke.
- Gorputz arrotza biziduna bada (euliak...), olio-tanta batzuekin itotzen saiatu.
- Hostoak, lekak... denborarekin puztu egin daitezke; uzkurtzeko alkohol-tantak erabili.
- Beste kasuetan, xiringa baten bidez urarekin bultzatzen saiatu, presio handirik egin gabe.
- Gorputz arrotza irteten ez bada, osasun-zentrora joan.
- Kaltetuak belarriko infekzioak maiz izaten baditu, ez da komeni belarrian likidorik botatzea (tinpanoa zulatuta egon daiteke-eta).

## 2 SUDURREAN

- Zintz eginez kanporatzen saiatu, kontrako sudur-zuloa estaliz.
- Gorputz arrotza kanporatzeko ez erabili beste objekturik, barrurago bultzatzeko arriskua baitago.
- Kanporatzen ez bada, osasun-zentrora joan.

## 3 BEGIETAN

- Kornean zauria eragiteko arriskua dago.
- Lehen pausoa begiak urarekin garbitzea da eta gorputz arrotza kanporatzen ez bada, bi begiak estali (mugimenduak murrizteko) eta osasun-zentrora joan.

Belarriko zulotik odola ateratzeari esaten zaio.

# OTORRAGIA

## ZER EGIN

- Kaltetua albokako segurtasunezko posizioan jartzen saiatu, odola darion belarria lurraren kontra ipiniz.
- Odoljarioa gelditzeko EZ estali belarri-zuloa.
- Odoljarioa larria bada, prozedura hauen bidez denbora aurreztu eta gaixoaren egoera hobetu daitezke.

## NOIZ ERAMAN HAURRA LARRIALDI-ZERBITZURA

- Traumatismoa edo konorte-galera egon denean.
- Odoljarioa bi belarrietatik agertzen denean.

Kasu hauetan odoljarioa inportantea izan daiteke. Konorterik eta traumatismorik gabeko kasuetan, berriz, lasaiago ibil daiteke, orokorrean garrantzi handirik ez baitute.

Kasu hauek gehienetan entzumenaren kanpoko hodiaren edo tinpano mintzaren zaurien ondorioz izaten dira.



Sudurretik odola  
ateratzeari esaten zaio.

# EPISTAXIA

## ZER EGIN

- Haurra lasaitzen saiatu eta aulki batean esertzeko esan, burua apur bat aurreratuz.
- Sudur-hegalak sudur-hezurraren kontra estutu, 10-15 minutuz.
- Neurri hauekin odoljariora ez bada eteten, pediatrarengana joan.

## NOIZ ERAMAN HAURRA LARRIALDI-ZERBITZURA

- Belarriko odoljariora ere duenean.
- Traumatismo edo kolpe handiaren ondorioa denean.
- Konortea galtzen duenean.
- Gaixoak itxura txarra daukanean.

**EZ LARRITU** haurrak, sudurreko odoljariora duenean, odola duen gorakoa botatzen badu. Sudurra eztarriarekin komunikatua dago; beraz, sudurreko zuloan dagoen odola ezterrira pasa daiteke eta hortik urdailera, horrek goragalea eraginez eta gorakoarekin batera odola botaz.



Hortza bere lekutik erortzeari esaten zaio.


# HORTZ-ABULTSIOA

## GARRANTZITSUA

Kolpe batek eragindako hortz iraunkor baten abultsioa larrialdi bat da. Esne-hortza bere lekuan berriro ipintzea ez da beharrezkoa, baina hortz iraunkorra mantendu nahi bada, ordea, berehala ipini beharko da bere lekuan berriro.

## ZER EGIN

- Hortza koroatik heldu eta sustraia ukitu gabe manipulatu.
- Zikina balego, urarekin garbitu.
- Medikuairengana joan bitartean, hortza heze mantenduko duen ingurune batean eraman behar da, esaterako, esne hotzean (ahal bada, esne osoa izan dadila) edo serum fisiologikoan sartuta.
- Eraman haurra ahal den azkarren medikuarengana.



# ZAURIAK

## ZAURIA SENDATZEKO PROZEDURA

- Lehenik eta behin, kaltetuaren itxura begiratu. Itxura txarra badu, zuzenean gertueneko osasun-zentrora eraman edo 112ra deitu.
- Garbitasuna mantentzeko eskularruak erabili edo eskuak garbitu zauria ukitu baino lehen.
- Zauriaren gaineko arropa kentzen saiatu, zauriaren osotasuna baloratzeko.
- Zauria serum fisiologikoz edo urez garbitu presioa eginez, gorputz arrotzak, hondarra eta horrelakoak kendu ahal izateko. Zauria barneko aldetik kanpoko aldera garbitu behar da kutsadura ekiditeko.
- Gaza garbi bat serumez busti eta zauriaren ingurua ere garbitu, borobil bat marraztuz.
- Gaza baten laguntzaz, zauriaren inguruan betadine edo antzeko desinfektatzailea jarri, zauriaren barnean sartu gabe.
- Zauria gazaz estali behar da eta esparatrapu zati batekin gaza larruazalera itsatsiko da.

## GOGORATU

- Zaurian bertan ez da **INOIZ** alkoholik, iodorik, antibiotikodun ukendurik edo kotoirik jarri behar.
- **Zauri batean iltzatuta dagoen materiala ez da inoiz kanporatu behar.**



# ODOLJARIOAK

## LARRITASUNA ERAKUSTEN DUTEN EZAUGARRIAK

- Odol-galeraren kopurua eta azkartasuna hartuko dira kontuan, bi horiek baitira larritasun-maila erakutsiko dutenak. Kasu hauetan kaltetua shock egoeran sar daiteke, eta odol-galerak jarraituz gero, heriotza gerta daiteke.

## ZER EGIN

- Zaurituaren itxura baloratu behar da.
  - Zauriaren gainean edo odola darion puntuaren gainean presioa egin, hamar minutuz. Zauri gainean jarritako zapia ez da inoiz altxatuko. Aldi berean, zaurituari gorputz-adarrak igoko zaizkio.
  - Neurri hauekin odoljariora kontrolatzen ez bada, eta zauria gorputz-adar batean badago, gorputz-adar horri ailegatzten zaion arteria garrantzitsuena hezurraren kontra sakatzen saiatu behar da. Zauria besoan badago, presioa aurreko aldean eta azpian egin behar da, bizeps muskuluaren oinean. Hantetan badago, izterra gorputzari lotzen zaion lekuan egingo da presioa.
  - Torniketeta azken neurri bezala bakarrik erabili behar da, eta, ahal bada, ez da egingo, askotan onura baino ondorio txarrak eragin ditzakeelako (gangrena, paralisia...).
- Beraz, zaurituaren bizitza jokoan dagoenean bakarrik burutuko da.






# ANPUTAZIOAK ETA MOZKETAK

## ZER EGIN

- Odoljarioa presio zuzena eginez eten eta zauriaren ingurua immobilizatuko da, gaza esterilez estaliz eta ondo lotuz.
- Moztuta dagoen atala, gaza esterilez (edo garbi dagoen oihal zati bat erabiliz) bildu eta plastikozko poltsa batean sartuko da. Poltsa hau urez eta izotzez beterik dagoen beste poltsa batean sartu. Moztutako gorputz-atalak ez du izotzarekin kontaktu zuzenik eduki behar.



Beroak eragindako larruazaleko eta larruazalpeko ehunen kalteak.

# ERREDURAK

## LARRITASUNAREN ADIERAZLEAK

- Sakonera eta, batez ere, hedapena.
- Haurretan larriagoak dira.
- Aurpegian, bularrean, eskuetan, genitaletan izatea.
- Kea arnastea.

## SAILKAPENA

- Lehen maila: gorritasuna eta mina.
- Bigarren maila: babak eta min handiagoa sortzen da. Shock-era eraman dezake kaltetua.
- Hirugarren maila: eskara marroi-beltzak edo ultzerak sortzen dira. Nerbioak suntsitzen direnez mina desagertu egiten da.

## ZER EGIN

- Haurra bero-iturritik alden du. Sutan badago, lurrera bota eta bueltak ematen saiatu, edo manta bat bota gainera.
- Arropa erantzi (erlojuak ere bai); arropa azalari itsatsita badago, ez kendu.
- Erreta dagoen atala hozten saiatu (presio gabeko urarekin).
- Babak edo eskarak apositu hezeekin estali.
- Babak ez zulatu.
- Ez erabili pomadarik.
- Begiak erreta badaude, urez bustitako gazekin estali.
- Hatzak erretzen badira, gazak erabiliz elkarrengandik banatu, itsatsita gera ez daitezen.
- Erreduraren hedapena handia bada, anbulantziari deitu (112), eta kaltetua etzanda jarri, burua hankak baino beherago kokatuz (antishock jarrera).
- Erredura gai kimiko batek eragindakoa denean, berdin jokatu, begiak ur askorekin garbitzea oso garrantzitsua baita.

# INTOXIKAZIOAK

## INTOXIKAZIO BAT GERTATU DENEAN, MEDIKUARI EMAN BEHAR ZAION HASIERAKO INFORMAZIOA

- Istripua eragin duen produktuaren izena.
- Sartzeko bidea: arnasbidea edo azala.
- Gai toxikoaren kopurua: irentsi, arnastu edo zurgatu denaren balorazioa egin.
- Intoxikatu denetik pasatutako denbora.
- Hasierako sintomatologia.
- Hasieran egindako ekintza edo tratamenduak.
- Intoxikazioaren kausa, ezagutzen bada behintzat.



# 1 IRENSTEAK ERAGINDAKO INTOXIKAZIOAK

## SINTOMAK

- Ahoan edo aho inguruan erredurak.
- Hatsean edo ingurugiroan produktu kimiko kaltegarriren baten usaina.
- Gorakoak.
- Sabeleko mina edo beherakoa.
- Arnasa hartzeko zailtasuna.
- Konorte-galera.
- Gorputz-dardarak.

## ZER EGIN

- Itxura txarra badu, 112ra deitu.
- Ez da gorakorik eragingo:
  - Toxikoaren izaera ezagutzen ez bada.
  - Produktu erregarriak badira: azido edo alkali gogorrak (lixiba bezalako kaustikoak, agua fuerte delakoa, etab.).
  - Hidrokarburoak edo petrolioaren eratorriak.
  - Konortea galdua duten kaltetuetan, ezta gorputz-dardara azaltzen duten orotan ere.
- Gorakoa eragin daiteke:
  - Osasun-zentrotik urrun egonez gero.
  - Intoxikazioa botika edo farmakoen ondorioz izan bada.
  - 30 edo 60 minutu baino gutxiago pasa bada istripua gertatu denetik.
- Xaboiak edo garbigarriak eragindako intoxikazioen kasuetan, apar aurkakoren bat erabili daiteke: oliba-olio edo ekilore-oliodun bi koilarakada.

## 2 ARNAS HARTZEAK ERAGINDAKO INTOXIKAZIOAK

### SINTOMAK

- **Karbono monoxidoa** adibidez, usainik ez duen gasa da, eta berogailuek gaizki erretzen dutenean, suteetan eta leku itxietan martxan dauden motorren kasuetan izaten da arriskurik handiena.
- Eragiten dituen sintomak hauek dira: buruko mina, gorakoak, orientazio-falta eta nahasmena, konorte-galera eta heriotza bera ere.

### ZER EGIN

- Kaltetua berehala intoxikatuta edo kutsatuta dagoen ingurutik aldentu eta leihoak edo balkoiak ireki.
- Norberaren segurtasunak lehentasun osoa du: “Lehena, norbera da”. Ez da sartzen ausartu behar gas toxikoen ihesa egon daitekeen lekuetan inolako babesik gabe. Siloetan, estolderietan edo putzuetan harrapatuta geratu diren pertsonen erreskaterako, suhiltzaileengana jo behar da.
- Kaltetua gertueneko osasun-zentrora eraman behar da edo 112ra deituko da.

Iberiar Penintsulan arriskutsua gerta daitekeen bakarra sugedorriaren hozkada da.

# EZTENKADAK ETA HOZKADAK

## 1 SUGEA

### SINTOMAK

- Min zorrotza, hantura, kolore gorri-ubela hozkada zonaldean .
- Shock anafilaktikoa oso arraroa izaten da.
- 4-6 ordura sudur-hodietan odoljarria, orban txikiak azalean, zorabioa, buruko mina, hipotentsioa, desorientazioa eta shocka eragin dezake.

### ZER EGIN

- Hozkada sugedorriarena dela ziurtatuko da.
- Kaltetua lasaitzen saiatu, eta ondoren, hozkada gertatu den gorputz-adarra immobilizatu.
- Ahal bada, izotza jarri.
- Zauria garbitu ur asko eta xaboia erabiliz.
- Kaltetua ospitalera eraman.



Erleak eta liztorrak eragindako eztenkadak orokorrean ez dira larriak, eta sintomak normalean hurrengo egunerako desagertzen hasten dira.  
Alergikoak diren haurrek, aldiz, sintoma larriak eduki ditzakete eta beraien egoera larrialdi bihurtu daiteke.

## 2 ERLEAK ETA LIZTORRAK

### ZER EGIN

- Eztena ikusten bada, pintza batez ateratzea izango litzateke egokiena.
- Zauria ur eta xaboiez garbitu, eta ahal bada, izotza jarri.
- Azkura oso gogorra bada, zauria amoniako diluituarekin bustitako konpresa eta gazaz estaliko da.

### ALERGIA LARRIAREN ZEINUAK

- Azkura larria
- Goragaleak
- Gorakoak
- Sabeleko mina
- Bronkioetako espasmoa
- Aurpegia handitzea
- Zianosia
- Hipotentsioa
- Koma egoera

Horrelakoetan eraman haurra larrialdi-zerbitzura



Ingurugiroko beroak eragindako gorputz-temperaturaren igoera.

# BEROAK ERAGINDAKO ARAZOAK

## BERO-KOLPEA

### SINTOMAK

- Hasieran: buruko mina, azal bero eta lehorra eta desorientazioa.
- Gorputzeko temperatura 40-41 °C bitartekoa izan daiteke.
- Bero-kolpea hasi eta ordu batzuetara kontrolatzen ez bada, heriotza eragin dezake.

### ZER EGIN

- Eraman kaltetua berehala osasun-zentrora.
- Jarri kaltetua bitartean toki freskoan eta itzalean.
- Biluztu eta gorputza ur freskoarekin busti. Haizegailua erabil daiteke.
- Saiatu pixkanaka temperatura 38,5 °C-tik behera jaisten.





Gorputzeko temperatura 35 °C-tik behera jaisten denean.

# HOTZAK ERAGINDAKO ARAZOAK

## HIPOTERMIA

### SINTOMAK

- Lehenik hotzikarak sentitzen dira.
- Temperaturak jaisten jarraitzen badu, hotzikarak desagertu egiten dira.
- Kaltetua geroz eta ahulago aurkitzen da, eta koordinazio-falta sentitzen du.
- Gorputz osoa hotz egoten da.
- Pertsonak bizirik iraun dezake temperatura 23,9 eta 29,4 °C bitartean mantentzen bada. Jakin behar da ohiko termometroek 34,4 °C-tik gorako temperatura baino ez dutela markatzen.

### ZER EGIN

- Kaltetua osasun-zentrora eraman.
- Kaltetua leku lehor eta beroan jarri behar da. Jantzi bustiak kendu eta oihal edo manta beroekin babestu. Ez da komeni orduko 0,6 °C baino gehiago berotzea.
- Etzanda gorantz begira jarri behar da eta ez zaio oinez ibiltzen utzi behar.
- Kaltetua konortearekin badago, edari beroak edan ditzake.



# EGIN BEHAR EZ DENA

- 1 Torniketea odoljariora kontrolatzeko azken aukera da.
- 2 Gogoratu epistaxia (sudurreko odoljariora) izanez gero, burua ez dela atzeraka bota behar. Hau eginez gero, zaurituak odola irentsiko luke, eta horrek bere egoera oker dezake.
- 3 Intoxikazio baten aurrean, ez eman inoiz ura gatzarekin gorakoa eragiteko, ezta ura bakarrik ere, honek toxikoaren absortzioa bizkortzen du-eta.
- 4 Lokatuta (luxatuta) dagoen giltzadura ez behartu, bertatik pasatzen diren arteria, bena edo nerbioak mindu daitezke-eta.
- 5 Kremlera ez behartu prepuzioa bertan eutsita gelditu bada. Kremleraren barruko aldea moztu eta bi alboak banatzen saiatu, beheko aldetik hasiz.
- 6 Ez saiatu sudurrean edo belarrian sartutako gorputz arrotzak ateratzen, barrurago sartzeko arrisku handia baitago.
- 7 Norbaitek haustura bat duela pentsatuz gero, ez eman ezer ahotik hartzeko, ezta mina kentzeko ere, honek kirurgia ezinduko luke-eta.
- 8 Kalean aurkitutako zauritu bati, lepoan mina edukiko balu, ez zaio inoiz ezer jarri behar buru azpian; horrek bere egoera oker dezake eta arnasa hartzeko zailtasunak izan ditzake.



- 9 Ez utzi inoiz bakarrik konorte gabe dagoen pertsona (laguntza eskatzeko beharrezkoa den baino denbora gehiago ez behintzat).
- 10 Ez mugitu inoiz bizkarra mindua duen zauritua, leku arriskutsu batetik kentzeko ez bada.
- 11 Konortea galdu duen bati ez zaio jateko edo edateko ezer eman behar. Bera bakarrik jan edo edateko gai izan arte itxaron beharko da.
- 12 Istripu bat gertatu den momentuan, inguruan dagoen jendea bertan gelditu beharko da, gero lekukoak aurkitzea oso zaila baita.
- 13 Istripu batean zauritutako pertsonak ez dira ospitalera autoz eraman behar, anbulantzian dauden neurriak behar izatea gerta litekeelako.
- 14 Ez saiatu zauritu baten gainean dagoen autoa altxatzen, mina hartzeko arriskua baitago; eta askatzerakoan, zaurituaren gainean eror liteke, min gehiago eraginez.
- 15 Ez ukitu inoiz elektrokutatu bat, elektrizitatea moztuta dagoela ziurtatu arte.
- 16 Sukarra duen bati ez jantzi arropa berorik, sukarra gehiago igo daiteke-eta.



# OINARRIZKO BOTIKINA



## 1 GAZAK

Hobe esterilak eta bosteko fardel txikitan gordetzen badira.

## 2 BENDAK

Krepezoek edo elastikoek denbora gehiago irauten dute eta beharrezkoa den beste egoera batean erabil ahal izateko garbi daitezke.

## 3 TIRITAK

Hoberena tira luzetan etortzen direnak erostea izango litzateke, zauriaren hedapenaren arabera zatiak mozteko aukera ematen dutelako. Zauri txikiak estaltzeko oso erabilgarriak dira.

## 4 ESPARATRAPUA

Oihalezkoak dira ezagunenak, baina badaude material honi alergia dioten pertsonak, beraz esparatrapu hipoalergenikoa edukitzea komenigarria da.

## 5 ANTISEPTIKOAK

Badirudi onenak iododunak direla (betadine edo pobidona iododuna), baina erabili baino lehen zauritua alergikoa ez dela ziurtatu behar da.

## 6 ANALGESIKOAK

Gehien erabiltzen direnak aspirina, apiretala eta termalgina dira. Pisua edo adinaren arabera erabakiko da dosia.

Pilula hauek eman baino lehen kontraindikazioak begiratu behar dira eta zaurituari alergikoa den galdetu behar zaio.

## 7 MATERIAL OSAGARRIAK

Guraizeak, pintzak eta eskularruak dira inportanteenak.

## 8 BOTIKIN-KAXA

Botikineko material guztia maleta batean bilduta edukitzea komeni da. Maletak iragazgaitza behar du izan euriarekin edo beste likidoekin barruan dagoena honda ez dadin, eta ondo identifikatuta gordeko da larrialdietan denbora ez galtzeko.

Barruan dauden produktuak ondo itxiak eta txukun egon behar dira.

Noizbehinka botikineko osagaien egoera begiratuko dugu, denak egoera onean daudela ziurtatuz eta behar direnak aldatuz.

Gogoratu botikina hurren eskuetatik kanpo egon behar dela.